

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4518

*EBAZPENA, 2022ko irailaren 27koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko futbol federakundearen Estatutuetan aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen dituenak.*

Euskadiko Futbol Federakundearen EAEko Kirol Elkartearen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1988ko abenduaren 12an, 156. zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

Euskadiko Futbol Federakundeak 2022ko ekainaren 30ean egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere Estatutuen artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Euskadiko Futbol Federakundearen Estatutuen 16. artikulua aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea. Artikuluaren erredakzioa honako modu honetan geldituko litzateke:

16. artikulua.— 1.— EFF-FVF-n gutxienez ondoko organo hauek izango dira:

A) Gobernu-organoa.

1.— Biltzar Nagusia.

B) Administrazio-organoa.

1.— Zuzendaritza Batzordea.

C) Ordezkaritza-organoa.

1.— Presidentea.

D) Barne-araudi-organoa.

1.— Idazkaritza Nagusia.

2.— Diruzaintza.

3.— Kirol Tekniko Zuzendaritza.

E) Teknikari-organoa.

1.— Euskadiko Entrenatzaileen Batzordea.

2.— Euskadiko Arbitroen Batzordea.

3.– Areta Futboleko Euskal Batzordea

4.– Kirol Teknikarien Euskal Eskola.

5.– Beste batzorde batzuk: EFFF-EFFko presidenteak, gai edo gai zehatz eta espezifikoak aztertzeke komenigarritzat jotzen duenean, edozein eratako batzordeak sortu ahal izango ditu, eta, kasu bakoitzean, batzorde horien osaera eta eginkizunak zehaztuko ditu.

F) Kirol-justizia-organoa.

1.– Aginpidezko eta Diziplinazko Batzordea.

2.– Apelazio-Batzordea.

3.– Eskumen eta Kontziliazio Batzordea.

2.– Hautapenezko organoak izango dira presidentea eta Zuzendaritza Batzordea, Batzorde Orokorra; gainerako organoak EFFko presidenteak izendatuko ditu modu askean.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal diote Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,  
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA.